

Erref. kodea: LAF-210-123

Izenburua: Dibulgazio artikulua

1

Aphez eskualdun batetik
behar luken Kulturaz

Adierkideak, barbatuko daukaguz kultura
hitz arrotz hori. Erdaraz ukan baituk gaia,
"culture" hortaz behar nitzaitzue mintzatu,
eta, ikusiko dugun bezala, ^{eskualaz} hitz horren
betherik ez dugu, nahiz mila liberako larri
horren chehea aise atxemaiten ahalko
dugun gure moltsa jorian.

"Cultura" erraiten zioten latinek
lehenik lur. lanari, eta laborantzarari.
Lurra lane edo labaki dagoeno, gizonak
lantu edo erabili gabe, ez ditake
aizha laborantzaririk. Hala. hala, landarea
bere bartharirik heldu denean, nehorik
harentzat deusirik egin gabe, ez du
basa-landare izena baizirik hartze. Hots,
gizonaren lanak egiten du "cultura".

Gizona, ^{gizonaren lantzean} sortzez, lane eta basakira
da. Baina ez da egundaino arunt
basa egiten ahal. Ez da sekula
jite hutsez handitzen edo altxatzen:
betxi adimenduak eta nahikundeak
badute zer egin haren barthan, harenak
ez badira, aita-amenak edo lagunenak.

2
Gisa bat edo bertze, gizona bethi
gizon da, eta haren jitea^{gizon} lanak
moldatua, hein batetaraino bederen.

Bainan gizona baithan zer ez da
lant ditakenik? Batek gorputza du
arhatzen: behar bezala erabiliz, beha
nola dituen zango-besoak ^{azkar eta} zaitheintzen,
beha zer lasterkari suharna, ~~etx~~
pilotari lerdena, edo ~~ad~~ palankari gaitza
bitlaka ditaken! Zain ~~degi~~ batzu
plegarazi ditu eta jar-arazi sail berezi
batetarat.

Bertze batek sendimenak ditu ernatzen
eta kasik doblatzen. Misionestek konda-
tzen daukute ^{itxar-haraindiko} basa erraiten diotegun
jende batzu harrigarriak direla beren
oihanetan: den gutrienerko arrabotseri
gogo-emaitzearen bortxaz, beharria
berazten zaitöte, eta gainkoak daki
noradino heltzen diren aditzetat;
berdin miresten dituzte heien begi
eta sudur urunkariak. Sortzelitako
dohainak, ^{entzuti} ~~beha~~ behakoak,
baliaztea dela medio,
chorrochta eta ~~beratu~~ beratu zaitzöte.
Ez dira larre egon: jitea lantuz
~~beratu~~ dute beren burua gainditu?

3
Huna orai bertze norbait, kondari edo
kollakari charmanta. Buruan zer ez zaio
sortzen, ichtorio, bertsu, alegia, hitz
polit, ditcho eta bertze! Idurimena
sutan duela ziniokete, hegoak edo
berdin arnoak harrotzen dutelarik.
Ikusiak eta ikasiak, ~~as~~ nauztuz,
beretzen ditu, eta gero zahar-berikatuz
ezin asmatuzko itxura batzuen pean
argitaratzen! Horiek ere bere gisako
kultura badu.

Jakintsunak adimendua du
lantzen, oroz gainetik. Entseatzan
da bere gogo-indarren zaltutzerat,
chuchentzerat, bizitzerat, argitzerat.
Oichtiko lasterkariak zango-zainak
lastenari jartzen ziozkan bezala,
jakintsunak buru-fuina ~~eta~~ eta
izpirikua ere, orha eta orha, egitari
lotzerat edo bederen ahalez hurbiltzerat
usatzen ditu. Askok jakitateari
diote erraiten kultura, baina
bichtan da ^{jakitatean} ez ^{hainitzan arteko} dela kultura mota
bat baizik: ez charrera segur,
baina ez ^{ez baitozpada,} bethi, premiatsuena.

Berehala ohartuko zirezte.

Alabainan, egiaen gosea balintadu \$
edozoin gizonak, baduke bertze goserik.
Hasteko, norik izan. araz bihotzaren deia?
Bizkitartean ez dira bihotz guzirik
berdin hartu, ez berdin arhatsu: lant
ditake amodioa, lant ditake adichidantza,
eta hastean gogor edo sorharo zenak
ikasten ahal du samur, ezti eta gocho
izaiten. Elhorni basari chertatu arrosa
gorriaren ederra! Baina ez othe
ederrago, bihotz basari chertatu
maitasun zabala?

Amodio-minari biziki hurbil gaio
ongi-mina. Denek barna sartua
dugu ongiaren beharra. Nahi dut ez
dugula behi gure eginbidea bethetzen,
ahuleziag, ezacholaz, ^{edo} atsegin-egariz;
baina ezin uka zerbaitek berechten
duela gure barthan gaizkia ongirik,
bertutea behatutik; ezin uka zerbaitek
chimitatzen, joiten, edo behar
orduan toleatzen gaituela, chuchen
bidetik zeiharhatzen girelarik. Ena-
dazue bada ez denetz kultura
baliosa, ongiaraku dei hori itho
orde, gero eta garbiago, gero eta
minterago edo kilikago alchikitzen?

egian bezala 5
Gure jiteak gauzen ederrari ere kasu egiten
dio. Askok gustua erraiten diote itxura,
kolore, arimua, ozentasun edo hitzen politiaz
ontsa jupatzeko edo erabakitzeko dohainari.
Badira segur dohain hori motz eta kamuts
baderamatenak herrestan, bizi direno;
bainan badira ere egin aseak baitira
munduaren diradiaz eta artitektak egin
obra miresgarriez: bethi gauza edereri
ohartzearen bostiaz, errektasun garitza
biltzen dute aruntkerien usnatzeko eta
baztertzeko. Hori ere egin utakuzko
"kultura".

Bainan guti aipatua den usna
berezi bat badugu gure ariman, "Canel
jaun mirikuak "sens du saisi" dertzen
duena. Begiak argra, beharriak
arrabotsa bezala; usna hunk sakratua
nahi du; gainkoaren graziaren galdez
dago; mundu hunkaz goragoko mundu
baten beharretan da. Sainduak dute
gain-gainetik beren baithangoin dar hori
baliatzen, hazten, hazkartzera, eta
hari esker nota ez dira zerutiar
eta zerutar biltzatzen iguzpi-peto
hersturen erditik?

Horra beraz hainitz kultura mota. Erran
gabe doa bat-bakarrari lotuz ez dela
gizona osatzen; maingu gelditzen da,
bi zangoetarik bat nãño eta bertzea
sano eginez bezala. Elgar lagundu behar
dute gizonaren dohain eta usna guziet,
bakotcha bere ozkan dagolarik, bertzeak
itho gabe.

Bainan, nahi eta ez, desberdina frango
gerthabuko da jende babetik bertzeak,
ez baitira denen bothereak hein berean
lortuko. Ez behar ere. Eta nola toki
edo eskualde batean ahardak eta
auzoak, kurutzatuz, ~~ez~~ elgar kutsatzen
baitute ongirako eta gaizkirako,
elgaren eite hartzen dute, eta hortik
heldu dira ohidurak edo kostumak;
ordainez hauek jendea erakartzen bai-
dute. aztura batzuen hartzerak; eta
horra "culture" eta "civilisation"
diarelakoen arteko harat-hunata zer
den.

Erlisioaren lana

7
girichtinoa, funtzioa den ber, eta ez
alegrazkoa, kultura baten jabe da.

Sinetsi behar dituen egiek gogoa
hazten diote: adimendua harmatzen
diote filosofia handi bati buruz,
erakusten diotelarik nundik sortua
den mundua, norik derabilan, zertako
den gizona bizirik deitua eta zer
ontasuna daukan bethierako arima.

Erlisioak manatu egiten dituzte nola
ez dute bortxatzen bere buruaren
lantzak: gogoeta, gutizia, sendimendu
ala obra, denari kasu egiteko du
girichtinoak, denak onerak itzuli
behar dituenaz geroz.

Eta ohoitz-sakramenduari esker
grazian bizi da, bertze munduari
jusia, sakratuan igeritua, arraino
urean ~~liber~~ edo hegaztina airean bezala.

Bide-nabar, liburu saildu,
predikua, sailduen bizitze, eliza aphaindu,
elizkizun, kantu eta gaineratekoak
nola ez dituzte idurimena, sendimendua
eta gostua bera hazten?

~~Altxer~~ Bai girichtinoak badu ~~bera~~
erlisioan bere buruaren altxatzea.

8. Apheza, ararteko behar duenaz geroz
gaithearen eta gizonen artean, nola ez
da entseaturiko girichtino lehenetan
izarterat?

Dugun erran berehala ez ditakela izan
girichtinorik, are gutiago aphez girichtinorik,
Kristo jauna denen buru ezagutu gabe:
denen buru eta denen biktiz; hari behar
baitugu eman gure fedea haren erakuspenari
baino lehen; hura behar baitugu saritzat
igurikatu haren zerna baino lehen; hura
marikatu haren ongi-eginak eta obra
miresgarriak baino lehen. Hots, Kristori
behar diozkagu erakutzi gure ezagutza,
sendimendu eta egitate guztiak. Jesusen
amodioa, hura gure zimentuzko kultura.

Hechun horri datxizkola, aphezak
nola ez ditu bere baitan asentaturiko
semenarioan jasta eman diozkaten
jakitate sakratuak? ~~Liburu~~ sarrinduak
ikher ditgala beldurrik gabe: gure
arintzineko eskualdun aphezak uzturuegi
zauden Testamentu zaharrari, eta
harrigari da eskuaraz ez baitugu Bible
Katolikorik. - Bertzalde ez utz
baptenerat girichtino sineste, eginbide,
zuzen, ichtorio eta liturgia chehetasunen
gogoan erreberitzea.

Behin ikasiak, ez dira behinikotz hartuak.⁹
Chata batean emazu ur zorta bat, eta
utz untzi hori bere gisa ura nozik behin
emendatu gabe. Ura arrotako da eta
chata chuko-chukoa geldituz. Halaber
gure buruaz: jakitate bilduak ez ditugu
begiratu gehiago bilduz baizik.

Bainan apheza ez da girichtino
hutsen apheza: ez da girichtino hutsik;
girichtinoak bertzeekin bizi dira mundu
hontan, eta ez balitz paganorik ere,
behar dugu aitortu erlisioneaz bertzalde
balitakela nun zer ikas, nun zer pentsa,
nun zer mirets: hitz batez erraiteko,
fedeak ez du jakitate guzira kokatzen,
ez eta kultura guzira mugatzen, nahiz
guneka gaindi egiten dioten.

Apheza ez ^{erlisioneaz bertzalde} dagoke erlisione zedarrizetan,
bere denborako lagunekin, bere adinekin
edo mendekidekin mintzatzeko behar
ditu ^{heien} ~~orain~~ hitzak ^{ezpainen} eta
^{heien} ~~orain~~ ^{asmuak} guguon erabili. Asmu
ala hitz, munduko liburuetan ditugu
hatchemanen.

Aita Sainduak aphez-gaien ^{moldatzeaz} ~~matteaz~~
egin duen guthunean, galde egiten
du argi ditzagun orainko ikasi-berri

20 guziaz, Etizaren ohorearen gaitik eta
ondoko egunetan itzal gehiago egin
19 dezaten gaitik. Ohorea ohore eta
18 itzala itzal, iduri gait abantail handia
17 ere aurki dezakegula jakitate berri
hontan gure aphez-lanari buruz!
16 Bertzeak bertze, "psychologia"-k emanen
15 dauzku arimen gidatzeko bide berri
14 batzu, hala nola "psychoanalyse" deitua
13 gogo-ikertze hura; "sociologia"-k ere
12 erakutsiko zerk dituen fededun
11 multzoak sustatzen, epheltzen, biltzen
10 eta barreiatzen; "economia"-k argitutako
9 zazpiaren manamenduari doazkon
8 hainitz kasu; "biologia"-k begien
7 biktariat emanen jenden bizinari eta
6 osasunari buruz zaharrek ezin
5 asmatuzko egintzide andana bat;*
4 "filosofia"-k ere hedatuko dauka
3 adimendua hainitz bazterretarat;
2 baina orhoit, behar ditugula
1 erakasper hoik oro fedeak eman
0 argiekin uztartu, heieri esker ahalaz
joritu edo zuzendu, huts! hein batean,
aldez edo muldez ikasi guziak
jakitate bakar batean urtu!

Hein batean, diot: alabainan ez gira 11
batasunaren egiteko bezperan, ez eta ere
bezperaguan. Etsigarri bezala da jakintsu-
nen liburuari lotzea. Erlosureak baduela
michterio? Hitz eta promes dautzuet ez
direla bertzetan ere oro iguzki, ez
ilhargi: hainitz ilhunte uzten dautute
libururik harriagarrienek. Ez estona,
historia zerbarrehin gelditzen bazirezte
plama batzu irakurku - eta! Ez dugue
behin ere atchemanen mundu hontan
zuen jakitate gusearen asezekorik!

Behar dautzuet gehiago erran. Ez
dugue ez aski diru, ez aski argina
uktanen, ikasi nahi zintuzken ^{te} laudeneri
ere lotzeko. Ontasun estak horren
bethezeko, jakizue badizela «revues
et bibliothèques circulantes» deitua obra
batzu. Frango merke jesan edo maitega
ditazke agerkari edo liburuak zombait
egunentzat: merkeaz bertzalde, behar
delarik irakungara turnatu ephe
laburrik barne, kura ideki gabe postan
ez sartzeko, zehar-mehar bederen
lehiakara iragaiten da, ez baita
batere segur bertzela ~~da~~ eginen zela
haren ezagutzarrik! Beraz bi aldetararik

12 bada irabazi! Gasta gutxiago eta
argitze gehiago.

Eskuak-kultura

Bainan aphez eskualdunak behar
du eskualdun izan, eta ez bakarrik bere
mendeko gizon. Ez erdizka, bainan
oso-osoki. Ez odolez choitki, bainan
mintzariez eta jakitatez.

Ahalgetzeko litake aphez eskualdunak
ez balaki nolakoa den Eskuak-herrira
bere mendri, zelhar, ibai, ~~eta~~ oihan,
herri, hiriekien; itsusi, ez balaki
noiztik bizi den gizona gure eskualde
hauan, harpe-dentoretarik huanak, eta
zer izan diren arbasoen gertakari
premiatsuenak, menderen mende;
itsusiago, ez balaki erlisioneak nola
den finkatu gure aintzineko paganoen
arbean, ~~eta~~ zer izan diren haren
goiti-beheriak, eta orai ere nun
zer traba atchemaiten duen gure
heritararen sineste basa eta ohidura
makurretan. Eritasunen irburuak
ezagutu gabe, ez uske utkan sendatuko
dituztuela nekoren garizak!

Bainan ohidura onak ere on dira

13

erotik ez agutzeko: zertan den laborantza,
zertan hazkuntza; zertan gainerateko lan
bideak; zontak herritar norak doatzen
urtekal bana-bertze sortzeretik
urrun; zerk dituen seinatuzen eskual
- etchea, eskual- musika, eskual- dantza,
eskual- pilota, ^{itxi} eskual- legea! Alabainan
gure fededunen bizi guzira ohidura hoitan
da orkatua, eta arrotz eman ginezake,
ez lagine guhaur ere, aphezak, gauza
balios hoitaz hartuak bihotz mamiraino.

Amazon dotlez behar dugun jakin
eskuaraz, ez nolazparit marruskatzen,
bainan argi eta garbi mintzatzen,
egiazko urgulu batekin. Ez pleini,
otxoi, eskuara labur eta motz dela
asko gogoeta edo sendimenduren
agertzeko! Segur izan zaitzete zuen
gizrichtino eskualdunek jasan ahala
irakaspen ekarriko duela eskuarak,
ongi ikasi balinbaduzue bederen.

Eskuarak ez badu asmu bat konpreni-
tzeko gisan itzulikatzen ahal, emozue
goguari, ala ez duzuela ^{guzkanen} eskuara
aski barna ikertu, ala zuzen ezin

14 erranezko asmu famatu hura, batere
erran gabe uzten ahal diren betarik
ditakeela. ~~Osoit zen dion liburu~~
Sainduak: ^{dionaz} "yainkoak aizea neurtzen dio
~~arriaren~~ ardiaren ilhearia ~~ARAKARA!~~"
guk ere berdin dagigula gure
artaldearentzat!


Eskuararen ikasteko, gauden beharria
chut jenden mintzariari, zer nola
duten erraiten; irakur eskualdun
beriketari eta agerkeriak; ~~estekura~~ ^{beretik} eskura
zombait liburu; baina oroz gaineratik
artha predikua, hor luma zuen
mintzariaren ~~artha~~ oroztatze eta
edertze; ^{artelan} ~~zombait~~ aldiz zertako
ez bil ashez ~~Arriaren~~ ^{gazteak} elgarrekin
eskuaraz ekhai handi zerbaiten
argitze; ^{edo berdin eskuaraz, enbun ~~basez~~} lehenbizian nethe ^{laken}
eta idor libzaitzuetek, hemengo ^{aditzeko?}
hitzaldi hau bezala; baina emeki
-emeki eskuara legun lakigute eta
guhaur harrituak gintazte, aise
^{ad. lu edo} adiarazi dituzte gula burutik iragan
gogoeta gutiz gehienak!

+ x +

Adichkideak, engoitik burura - ordu dut.

Azhez eskualdunaren kulturak zer behar duen, erran dautzuet lami-lamia. Zer izanen den zuentzat ez dakit, eta zuiharen ere ez zinakitete. Alabainan egun guzietako lanak manatzen du eta nehorik ez ditu bere chedeak oro behetzen ahal.

Bizkitartean orhoit zaitzete Elizaren ohoreaz, eta gogoan har Eskualdunet merexi lituzketela azhez saildu, gurbil eta gain-gainetik argituak, azhez Ituristotiar eta eskualdun zinezkoak. Ea ukanen dituztenetz?



Mais le prêtre se développe
pour autrui. Il doit pour agir
sur son temps et son milieu, être
de son temps et de son milieu.
C'est en parlant le langage
de son contemporain qu'il
peut transmettre ses richesses
religieuses.

Par langage


j'entends : les catégories mentales
et
aussi la langue
ou les langues

Le prêtre fera bien de se
tenir au courant des grandes
études actuelles : il peut trouver
sur sa route des âmes qui
s'y seront formées ou déformées.

Honnem de l'Eglise

Moyen d'influence

Et compétences à acquiescer



PETIT SEMINAIRE ST-FRANÇOIS-XAVIER
à USTARITZ

PARENTS à VOS ENFANTS
CHRÉTIENS à VOS FUTURS PRÊTRES
ANCIENS à VOTRE MAISON
VOUS DONNEREZ CETTE CHAPELLE
SOUSCRIVEZ


HIRIART et LAFAYE ARCHITECTES

C.C.P. BORDEAUX 181.77

Économie (monde)
Sociologie (autre cathédrale)
Psychologie (direction)
biologie (insémination artificielle)
philosophie [attention !
Littérature (et art d'écrire)
Difficultés pratiques : argent...
temps ... Prêts de livres, bibliothèques
circulantes ... Revues circulantes, etc.

Mais s'il y a une atmosphère
mondiale, européenne ou française
il y a un milieu basque à
comprendre en premier lieu :

La civilisation basque est
faite d'un passé et
d'un présent, qu'il faut
connaître pour mieux
influencer sur le milieu



PETIT SEMINAIRE ST-FRANÇOIS-XAVIER
A USTARITZ

PARENTS A VOS ENFANTS
CHRÉTIENS A VOS FUTURS PRÊTRES
ANCIENS A VOTRE MAISON
VOUS DONNEREZ CETTE CHAPELLE
SOUSCRIVEZ

HIRIART ET LAFAYE ARCHITECTES


C.C.P. BORDEAUX 181.77

Connaissance de la langue.

1. Vocabulaire
2. Turnures, proverbes
3. Exercices fréquents de traduction.

Lire journal et que
Henri, - Enme souvent -
Pourquoi pas des extraits
en langue ou petit comité.

Conclusion. - Fierce
nécessaire. - Les clés -
Mais J.-C. avant tout!



La Culture chez le
frère basque

Terre cultivée - en friche
Plante cultivée - sauvage
l'homme

dit inculte est surtout
mal cultivé

L'homme ne vit que par une
adaptation volontaire à un
milieu : un effort...


mais il y a ~~des~~ la variété
dans la culture :

Facultés diverses

physique
imaginative
intelligence
sensations
sentiments
instinct moral
... esthétique
sens du sacré

et il y a des degrés ...

Culture ~~propre~~ humaine = civilisation...



PETIT SEMINAIRE ST-FRANÇOIS-XAVIER
A USTARITZ

PARENTS & VOS ENFANTS
CHRÉTIENS & VOS FUTURS PRÊTRES
ANCIENS & VOTRE MAISON
VOUS DONNEREZ CETTE CHAPELLE
SOUSCRIVEZ

HIRIART ET LAFAYE ARCHITECTES

C.C.P. BORDEAUX 181.77

Culture

du

Préte

Basque
